

[**b**]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

536. zkia.

XIII. urtea

2005eko uztailaren 1a



Fernando Suarez eta Iñigo Arkauz

Bizitza bizkarzainen babesean



ESTUDIOS ARRILLAGA



Arragueta 12. EIBAR
Tel. 943 20 06 98



Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza
Altzarigintza osoa



Errosario 15. ELGOIBAR
Tel. 943 74 40 19



3.
Urteurrena

Pizzeria eta taberna

Salento



Gaur, uztailak 1, ospakizun handia!

Pizza bakoitzeko
izozki italiar goxo bat
oparituko da



Deitu eta enkargatu zure pizza!
San Frantzisko, 48 · Tel.: 943 74 01 96



UNAI VILLENA

Barkatu Alaitz, berandu natorkizulako. Irakurle gehienek ez dute jakingo, baina gure idatziek astearterako entregatuta behar dute egon, eta astelehen goizean ari naiz hitz hauek idazten. Berandu natorkizu, eta egia esan, momentu honetan (beste askotan ere ez, baina honetan bereziki) ez nago gehiegi pentsatzeko. Asteburuak izugarritzko ajea utzi dit. San Juan gava grill batean saltxitxa batzuk erreaz eta garagardoarekin topa eginez ospatu genuen. Hurrengo goizean igerilekura joan nintzen, eguerdiko eguzkitan buruz gora etzanda lokartu nintzen, eta ordubate eskasean aurrealde osoa erre nuen. Daukadan itxura ikusiko bazenu; Osasunako elastikoa baino gorriago nago! Eta nik uste nuen, hori Mallorcara doazen aleman inozoei bakarrik gertatzen zitzaiela! Udako oporren aurreko azkenurreko Barren da hau. 27 gradu daude itzaletan, baina nik oraindik ez diot opor usainik hartzen hasi berri den udari. Abuztura arte klaseetara joan beharko naiz eta azterketak iraila bukaerarte luzatuko zaizkidanez, Euskal Herrira bueltatzen naizenerako uda pasata izango da. Azkenaldian denbora oso azkar ari zait pasatzen, ia konturatu gabe. Zuri, Alaitz? Oporretarako planik egin al duzu? Bi hilabete barru atal honetan berriz ere elkar ikusten dugunean uda osteko ajerik izatea espero duzu?

ZOZOAK BELEARI...



ALAITZ VIVES

«Itzaletan 27 gradu. Planik egin al duzu oporretarako?»

UNAI

«Hamar mila milioitako izarren hotelean pasako dut asteburua»

ALAITZ

Bai horixe! Berandu zatoz eta astelehen goizak lo harrapatu nau, Unai! Aste honetako elkarrizketak bakarriketa izan beharko zuela pentsatzen hasita nengoen. Ez da ideia txarra, ezta? Zure e-maila noiz iritsiko zain nengoela, zure partez aste honetako "Zozoak Beleari" idaztea ere pentsatu dut. Era horretan "ti-ta" batean amaituko nuke, neuk galdetu eta neuk erantzun. Kotxean noala izaten ditudan bakarriketa horietako bat gogoratzea nahikoa nuke. Inoiz gertatu al zaizu horrelakorik? Nere buruarekin jo ta sua borroka dialektikoan ari naizela semaforoan gelditu eta ondoko autogidaria begiak zabal-zabal, garrasika dabilen emakume eroari begira. Gorri-gorri eginda jarri eta semaforoa berde jartzen denean zitzu bizian atera behar, ze erremedio! Ni zu banintz ez nuke oporretarako planik dudana galdetuko. Hain daude urruti! Horrexegatik nahiago dut hurrengo asteburuan nora joango naizen pentsatzea eta astelehenero lanera ajeak jota iristea. Hala ere, erre gabe bada, aukeran, hobeto. Inork barixaku honetan lerro hauek irakurtzeko astia hartzen badu, ni ordurako Pirineotan izango naiz, eta gava munduko hotelik ederrenean pasako dut. Hamar mila milioitako izarren hotelean.

Azken galdera bat, Unai. Alemaniako eguzkiak hatzamar puntak ere erretzen al ditu? Asteburu osoan hamar lerro idazteko gai ez izateko...



JAKINTSUAK EZ DU ESATEN PENTSATZEN DUEN GUZTIA,
BAINA ESATEN DUENA BETI PENTSATZEN DU



Aristoteles

Pedro Barrutia

Pedro "Goikoerota" hil zaigu. Pedro, bere buzo urdinaren ezaugarriaz gain, herritar irekia eta alaia genuen. Guztion lagun eta adiskide. Horrez gain, beste bitxikeria edo jakingarri bat ere aipatu nahi nuke lerro hauetan.

Francoren gerra garaian ez zegoen irati asko Elgoibarren, baina bazen bat Goikoerotan. Batzuetan bat edo bi eta bestetan hiru edo lau lagun sartu ohi ziren Goikoerrotara irratia entzutera. Behin, bospasei lagun irratia entzuten ari zirela, Guardia Zibila sartu zen eta guztiak koartelera eraman zituen, baita Pedroken ama ere. Egun gutxira, guztiak espetxeratu zituzten, Pedroken ama barne. Pedrok, Guardia Zibilei aurre eginaz, gogor esan zien bera eraman zezatela amaren orde, irratia berea ere bazela esanaz. Baina, alfer-alferrik, bospasei giza-seme haiek eta Pedoren ama kartzelaratu zituzten azkenean.

Pedrori betiko agur egiteaz bat, gizatasun ekintza hau ere aipatzekoa dela iruditu zait.

Agur, Pedro.

FE. 0028836-G

Kirol Patronatuko bazkide eta erabiltzaileei:

Lehenik eta behin, eskerrak ematea gustatuko litzaiyuke harrera zerbitzuan aritu garenon partez azken lau urteotan zuengandik jaso dugun adiskidetasun eta laguntzagatik.

Lau urtean zehar ilusioz eta indarrez beterik lanean jardun ondoren, Udal Kirol Patronatuko instalazioen adjudikazioa berritzeko orduan Madrileko enpresa garau bat izan dugu aurkari. Azpiegitura aldetik hain fuertea izanik, ekonomikoki oso prezio baxuekin sartu da lehiaketara eta honen aurrean gure enpresa herrikoiak (bi neska elgoibartar enpresarik eta beste lau langile elgoibartarrek osatuta), ezin izan du baldintza berdinetan lehiatu, nahiz eta gure enpresak zerbitzu horren jarraipen hobea egingo lukeela gauza nabarmena izan. Gure ustez, lau urtetan zehar hartutako esperientziak, Elgoibarko Kirolaren munduko ezagutza izateak, Gestio Programaren dominioak, jendearekiko harremanak eta beste hainbat puntu garrantzitsuk %100ean funtzionatzen dutela kontuan hartuz, gutxieneko balorazioa egin beharko lukete.

Pena handiz eta behar den mailan baloratu ez gaituzten sentsazioarekin agurtzen zaituztegu, gutaz oroimen onarekin gelditu zaretelakoan (gu behintzat hala goaz-eta).

**EDURNE SAN MARTIN, NEREA GABILONDO,
AINARA ARANBERRI ETA EIDER IRIONDO**

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasoze Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorobategi, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurrutxaga, Iban Urizar, Kokoe KE, Uruzuno, Unai Villena, Aloitz Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

KEXAK



• Herritar batek esan digunez, **Santa Ana kale bukaera zikinkeriaz beteta egoten da**: "Kale buakeran dagoen aparkaleku ingurua zikinkeriaz beteta egoten da. Jende mordoia ibiltzen da pasiatzen, eta lurra hari soltez beteta dagoenez, ez da batere eroso bertan ibiltzea. Lehen gainera, jarleku eta zakarrontzi batzuk zeuden, baina obrak egiteko kendu egin zituzten. Udalari, berriro jartzeko eskatuko nioke, eta apur bat txukuntzeko".

• Herritar batek esan digunez, **umeak oso bizkor ibiltzen dira bizikletan kalean**: "Umeak oporretan daude, eta eguraldi onarekin denak bizikleta edo patinetan ibiltzen dira. Ez nago horren kontra, baina kontuz ibili behar da. Kalean mota guztietako jendea ibiltzen da, umeak eta edadetuak, eta susto bat baino gehiago izan dugu azkenaldian. Jende asko bizikleta batek noiz harrapatuko ote duen beldurrez ibiltzen da. Mesedez, kale barruan poliki ibili".

• Santa Klara auzoko bizilagun batek esan digunez, **Santa Klaran aparkaleku falta handia dago**: "Herri guztian gertatzen den bezalaxe, Santa Klaran ere, autoa aparkatzeko arazo larriak ditugu. Ez dago aparkatzeko lekurik, eta jendeak ahal duen tokian uzten du autoa, gehienetan gaizki aparkaturik eta traba egiten. Auzoan baditugu pare bat parke, inork erabiltzen ez dituenak, eta gainera egoera nahiko kaxkarrean daudenak. Zergatik ez dira aparkalekuak egiteko erabiltzen? Aparkaleku arazoa dirudiena baino larriagoa da, gero eta auto gehiago ditugu eta aparkatzeko toki gutxiago".



TXALOAK

• Herri Eskolako 4-Bko ikasleek eskerrak eman nahi dizkiote **Ane Lasa andereñoari**, urte osoan zehar berarekin oso ondo pasatzen dutelako, eta gauza asko ikasi dituztelako.

• Herriko **Udal Musika Bandaren zaletu amorratu bat etorri zaigu domekan eskaini zuten kontzertua txalotzera**. "txaloak ez ezik, irrintziak ere merezi dituzte Musika Bandako kideek, musikariak ederki jotzen dituztelako obrak guztiak eta Txomin Mujikak ezin hobe azaltzen dituelako pieza bakoitzaren aurretik bitxikeria eta istorioak. Kostata izango dute gainontzeko herrietan geurea bezalako Bandarik!".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Tel: 943 74 10 11

- 📍 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 📍 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- 📍 IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Batoz informazio eske!



Loreak eta belarra

Aspaldiko garaietatik elkarbanatu dituzte lursailak, loreek eta belarrek, belarrek eta loreek. Hesiaren alde banatan lorategiak eta zelaiak. Lorategietan loreak xarmant hazten ziren, eta zelaietan belarrak astiro usteldu. Loreek: petaloak, hostoak, arantzak, usaina, erleak inguruan... Belarrek, hori, belarra; ardi kakak, txiza potzuak, kiratsa. Astiro usteltzen ziren soroetako belarrak, azkar hazi lorategietako loreak...

Gaur egun ere soroetako belarrek usteltzen darraite, eta lorategietako loreek irribarrez begiratzen diete. Ura zurrupatzen diete, eta gatza lapurtzen diete, eta oxigenoa harrapatzen diete, eta argia kentzen diete... Belarrak ez du horrenbeste gauza behar! Loreak bai, ordea. Hala dago mundua, lorea lore eta belarra belar. Batzuk urez itotzen, besteak ur gabe ihartzen. Zer da lorea? Zer da belarra? Akaso inporta al zaio inori? Loreei ez, eta, zoritxarrez, belar gehienei ere ez.

Antton Alberdi



BAI ESAN?

OVIDIO
CAMPELLO

GALIZIA KULTUR ETXeko KIDEA

Galiziako hauteskundeak ospatu berri direnez, Elgoibarko galiziarrek beraien jaioteriko hauteskundeak nola bizi izan dituzten jakin nahi izan dugu. Boto immigrantearen zain egon ondoren emaitzak ez dira aldatu eta Manuel Fragak gehiengo absolutua galdu du.

- **Jarraitu al dituzue Galiziako hauteskundeak?** Bai, egia esateko nahiko gertutik jarraitu ditugu Galiziako hauteskundeak, besteak beste, Galiziako Xuntak dirulaguntzak ematen dizkigulako, eta han gertatzen dena interesatzen zaigu.
- **Espero al zenituen emaitza hauek?** Bai. Urrun gauden arren, sarri joaten gara Galiziarra, eta hango errealitatea eta hauteskundeetako hautagaiak ezagutzen ditugu. PPren garaipena ez genuen zalantzan jartzen, argi zegoen berriz ere berak irabaziko zuela, baina Alderdi Sozialista eta Blokeak zeuzkaten 17 diputatuak mantendu egingo zituela uste genuen, eta 13 lortu ditu.
- **Manuel Fragari iritsi al zaio jubilatzeako ordua?** Bai, fisikoki ez dago batere ondo, eta erretiratu egin beharko litzateke. Galiziar peto-petoea izan da, galziarren alde lan handia egin du, eta bertakoek gustuko dute.

komikia



Kokoe OZA

[AKORDATZEN NAIZ]



MIREN VALLEJO

1923an jaioa

«Erderia eta euskeria»

Lehen ez gendun hitz erdi ere egitten erderaz. Nik ez dakitt euskeraz berba egittia debekauta egon zan edo ez zan. Hori esaten zabenak amorrua ematen zien.

Nahiz eta eskolan dana erderaz egitten gendun, etxera juandakuan euskeraz. Eta familia batzuek bakarrik giñan Elgoibarren. Batzuek esaten zaben ez ziguela laga euskeraz egitten: gizurra!

Ama hamengua zan, Errosarixoa kalian jaixotakua, eta aitta Sestaokua, "de la margen izquierda". Aittitta etorri zan Palentziatik, eta ezkondu zan hamengo batekin.

Gure aitta izan da beti euskalzalia. Hona etorri zan 5 urtekin, eta elgoibartarrez berba egitten

zaban. Aittittak esaten zion amamari: "tu a los hijos en euskera, eh! Aunque yo no lo sepa!".

Erderaz nun ikasi? Eskolan egin gendun dana erderaz 14 urtera arte. Eskola txikixan esaten dana, *parbulitosen*, dana euskeraz ikasi gendun.

Maistria hamengua zan, eta harekin dana euskeraz egitten gendun. Gero, sei urtekin edo, gora juan giñanian, ba...

Hika ez dakitt. Eibarren gehixago egitten da hamen baiño. Batzuetan hasten gera, *entzun don?* Baiña barrez bezela hasten gera: *entzun jaonat, hau don martxia, hau eta...* pixkat gure hizkeratik ertenda. Guk beti, bestela, zuka. Berori ere ez aitxari, sekula ez.

[GURE BERBAK]

Animalixak esamoldietan (3)

Gaurkuan ere animalixak hizpide, aurrekuetan bezela.

- *Haura don zaratia lehenguan jatetxian: ollategixa ematen jonan.*
- *Kolpe zorriñ jo gabe bizi dok.*
- *Zezentxo bat eginda dago hire semia: hori da indarra daukana!*
- *Kontuz horrekin, gaur ardi-narruz jantzitta dabik eta.*
- *Ardi galdua bezela dabik mutil hori: bakarrik eta noraezian.*
- *Hamen dator, azkenian, gure ardi errena (azkena).*
- *Mutil gaztiak hor jartzen dira Maalako petrillian, "uso-pasia" ikustera.*
- *Hor dago gure laguna, zorro-zorro, hitzik ere esaten ez daukala!*
- *Baitta zera ere! Txakurraren biboliña!*
- *Hori pelotarixori txakur zaharra dok.*
- *Kale-txakur bat da Patxi: ez bazkalizera eta ez afaltzera ez dator etxera.*

Jesus Mari Makazaga

Lanbroa



**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Asteleheneretik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

HERRI-GAİN
ERRETEGIA

Ondo pasau jaixak!

San Pedro auzoa 4
☎ 943 74 30 40 ELGOIBAR

BIZKARZAINEK ZAINDUTAKO BIZIMODUA

Ekainaren 18an kaleratutako agirian, PPko eta PSOEk hautetsien kontra atentaturik ez duela egingo adierazi zuen ETak. Une horretan, Euskal Herriko makina bat zinetotzi etorri zitzaizkigun gure burura. Nola aldatuko du honek beraien bizitza? Aldatuko al du? Eta, batez ere, nolakoa da bizitza bizkarzainak aldamenean eraman behar dituzunean. Fernando Suarez (PSOE) eta Iñigo Arkauz (PP) Elgoibarko Udaleko zinetotziak, prest azaldu dira euren esperientzia kontatzeko.

FERNANDO SUAREZ

Francoren garaia bizi izanak markatu zuen Fernando Suarez. Esan digunez, "gaztetatik jakin dut askatasunaren alde borrokatuko nuela, diktadura hartatik atera behar ginen". Euskadiko Ezkerran ibili zen eta gerora, EE PSOErekin batu zenean sozialista bihurtu zen. Sei hilabete zituela Eibarera joan ziren gurasoak bizitzera eta Fernandok dioenez "hemen jaiotako edonor beste sentitzen dut lurralde hau". Francoren garaian orain baino lotura handia-goa zegoela adierazi digu, "lehen borroka bakarra genuen: askatasuna. Orain, aske gara baina okerrago gaude. Alderdi politiko asko dago,

askatasuna dago bakoitzak pentsatzen duena esateko, baina askatasun hori teorikoa da, praktikan, beldurra dago. Jende asko beldur da PP edo PSOEk dela esateko".

«Ez duzu uste ezer pasako zaizunik, baina pasatu izan da»

AMENAZAK

"Ni ez naute zuzenean amenazatu. Ez didate sekula telefonoz deitu edo gutunik bidali. Baina 5 urte daramatzat bizkarzainekin". Dena egin behar dut bizkarzainekin. Dena dago kalkulatu". Autoaren azpiak begiratu behar izan ditu behin baino gehiagotan, "kotxea kalean laga badut eta garajejan sartu nahi badut, beti begiratzen dut azpian. Ez duzu uste ezer pasako zaizunik, baina pasatu ahal da, eta pasatu izan da". Gogorra dela onartzen du baina beldurrik ez du sekula sentitu, ingurukoek gehiago kezkatzen dute, "lagunek eta familiak". Izan ere, poliki-poliki koadrilatik aldendu zela

onartu digu, "ez zidaten sekula ezer esan baina ez nuen inor ezertan inplikatzetik nahi. Ateratzeari utzi nion, lagunek deitu zidaten arte. Orain, afaltzera ateratzenean, lagunak izaten dira bizkarzainak ea nondik nora dabilzan begira". Ohitu egin da bizkarzainekin bizitzera, "zure bizitzako parte bihurtzen dira".

BIKTIMAK EZ

Fernandok behin eta berriz errepikatu digu bera ez dela biktima bat, "bizi dugun egoeraren ondorio gara, baina biktima ez". Ez du ulertzen zergatik den hain zaila bakoitzak bere iritzia izatea eta horren inguruan garbi hitz egitea. "Kuadrilako bat Batasunakoa da eta argi daukagu hobe dugula politikaz ez hitzegitea, berak bere ideologia dauka eta nik neurea. Gaia ebitatu eta kitto, lagunak izaten jarraitzen dugu". ETaren azken komunikatuaz ez du aipamenik egin nahi, "ez dut sinisten ezer aldatu denik. Bizkarzainekin jarraitzen dugu, hori da egia bakarra. Mahai baten eseri eta berbetan hasten garenean hasiko dira aldatzen gauzak. Baina guztiok izan behar dugu garbi dena ezin dela lortu". Bizkarzainekin ala gabe, Fernandok bere ideiak defendatzen jarraituko du, "etorkizunean, nire seme-alabek benetako gizarte aske bat izan dezaten".

«Bizkarzainekin jarraitzen dugu, hori da egia bakarra»

IÑIGO ARKAUZ

26 urteko gaztea da Iñigo Arkauz. Arrasaten jaioa, Donostian bizi da. Esan digunez, "aita enpresa-gizona da eta garai batean zerga iraultzailea eskatu zioten. Ama, aldiz, PP alderdikoa izan da betidanik. Amarengandik datorkit, beraz, politikarekiko interesa". Halere, politikan burubelarri sartzeko erabakia Gregorio Ordoñez hil zutenean hartu zuen, 1995ean, "argi ikusi nuen konpromisoa behar zela eta gure ideiak defendatu behar nituela, kosta ahala kosta". 1999ko hauteskundeei begira Elgoibarko Udaletxeko zerrendetan aurkeztu eta zinegotzi atera zen. Garai lasaiagoak ziren, "su-etena zegoen eta bizkarzainak ez geneukan". Iñigok ondo gogoratzen du ze egunetan atera zen estreinakoz bizkarzainekin, "1999ko abenduaren 3a zen, ETAk su-etena hautsi zuen". Bizitza errotik aldatu zitzaion eta 19 urte besterik ez zituela bere egunerokotasuna bererraike behar izan zuen. Beldurra pasa izan duela onartu du, "unibertsitatean ere, behin baino gehiagotan azaldu ziren pintadak nire kontra, gaueko ordu txikietan telefono deiak jasotzen nituen eta hil egingo nindutela esaten zidaten. Ez ninduten kokildu".

OBSESIOAK

"Taberna batean sekula ez nintzen, orain ere gutxitan, ateari bizkarra emanda esertzen eta begirada arraroak ikusten nituen nonahi". Sei urte pasa dira eta ohitu egin dela onartu digu. Iñigo Arkauz ez da

«Gregorio Ordoñez hil zutenean hartu nuen konpromisoa»

pertsona bakarra, "3 gara, neu eta bizkarzainak. Trapezistek sarea duten bezala, guk bizkarzainak ditugu bizitza babesteko". Hala ere, gogorra dela aitortu digu, "parrandan esaterako, bizkarzainak ere hor daude, taberna barruan edo kanpoan, baina beti hor. Beste inork baino gehiago dakite zein diren nire zaletasunak, ze lekutan ibiltzen naizen, dantza egitea gustatzen zaidan eta baita ligatu dudan edo ez". Politikan hasi zenean Iñigok ez zeukan neska-lagunik eta neska bati hurreratzeak erreparoa ematen zion bizkarzainak atzean zituela jakinda, "neska askok atzera egiten du politikan nabilela eta eskolta dudala jakitean, eta ulertzekoa da". Gaur egun bikotea du baina berarekin ere izan zituen arazoak, familiarekin batez ere, "nirekin hasi zela esan zienean eta politikan nengoela, PPkoa nintzela eta bizkarzainak nituela, arduratu egin ziren eta alabari esan zioten ea nola demontre aukeratu ninduen hainbeste gizon egonik merkatuan!". Onartzen du, halere, "honi aurre egiteko ezinbestekoa da bikoteak zure ideologia izatea, baina badakit berak nahiago lukeela politika utzi eta beste zerbaiten arituko banintz".

AMETSA


ETAren agiriari ez dio garrantzi handirik eman Iñigok, nahiz eta

onartu duen itzaropen txikia piztu diola, "nik erabateko su-etena nahiko nuke, bitartean, ez gaude ziur ze, gerta daiteke, su-etean partzial hau zinegotzi bat hiltzen etetea". Hori bai, sari errepikatzen zaio amets bera, "neskalagunarekin motorrean Euskal Herriko kosta zeharkatzen". Bizkarzainak jarri zizkieten egun berean kendu zioten estreinakoa gauza hori izan baitzen, motorra.

«Trapezistek sarea duten bezala, guk bizkarzainak ditugu bizitza babesteko»



[PROTAGONISTA]



Pedro M^aBarrutia

Ekainaren 22an hil zen "Txiron" ezizenaz ezaguna zen Pedro Barutia. Gurasoek Goikoerota okindegia izan zuten eta Pedro 11 urteko mutil koskorra zela ogia banatzen ibiltzen zen furgonetan. Bidea ikusteko burua leihotik aterata gidatzen zuen! Gerora, zaletasun ofizio bihurtu eta garaje mekanikoa ireki zuen. Erraminta Makina Museoan ere lagundu zuen makina zaharrak montatzen eta martxan jartzen. Maritxu Arriola, "La moderna", gozodendaren jabearekin ezkondua, estima handiko bikotea izan dira elgoibartarren artean. Izan eta izango dira.

[NOTIZIA]

Kalez kaleko salmentari buruzko ordenantzak istiluak sortu zituen Udal Plenoan

EAJ eta EAren aldeko botoekin onartu zen kalez kaleko salmenta arautuko duen behin betiko ordenantza. PP eta PSE-EEK kontra bozkatu zuten, eta baita Einbioukoek ere, Udaletxean partehartzerik ez duten arren. Gai honek istiluak eragin zituen Udal Plenoan. Izan ere, ordenantza berriaren arabera, saltzaileek bi aldiz ez badute postua jartzen aldeztu aurretik abisatu gabe, Udalak eskubidea du lizentzia kentzeko. Elgoibar Bizirik platafarmakoek Mariviren kontrako hitzak esan zituzten eta Udaltzaingoa egoera baretzen ahalegindu zen.

Unai Zulaikaren agurra

Unai Zulaika Ezker Batuako zinegotziak bere kargua utzi du, alderdi



barruan beste lan batzuk egiteko. Aurrerantzean Aitor Arakistainek beteko du bere lekua. Zulaikak pena handiz doala esan zuen, eta istiluak konpontzeko bidean suerte ona opa zion Udala Batzordeari. Unai Zulaika txalo zaparrada handi batekin agurtu zuten.

[ZENBAKIA]

172

Hasi dira Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiak taldeak antolatzen dituen Udalekuak eta aurten 172 haurrek eman du izena. Udaleku irekietan 136 neska-mutil arituko dira eta beste 17 begirale. Udaleku itxiak, berriz, Aubixan eta Getariko Askizun izango dira eta 38 haur eta sei begirale elkartuko dira guztira.

asteko [ARGAZKIA]



Bukatu dira Altzolako San Juan jaiak. Urtero bezala, giro ezin hobean pasatu dituzte jaiak altzolatarrak. San Juan zuhaitza kokatzearekin hasi zituzten jaiak, eta sekulako sua egin zuten San Juan gabean. Gau majikoa izaten da askorentzat. Jende dezente bildu zen Altzolako suaren inguruan, eta ziur asko desioaren bat eskatu zutela. Honez gain, musika, herri bazkaria, jolasak... izan dira jaietako protagonista. San Juanen ostean, San Pedroko jaiak hartu dute lekukoa.

Ondo pasa!

Urruzunoko Babes Ofizialeko Etxebizitzak inauguratu zituen Javier Madrazok



Javier Madrazo Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuak Urruzunoko Babes Ofizialeko 120 Etxebizitza inauguratu zituen joan zen astelehenean, hilaren 27an. Inaugurazio ekitaldian Migel Anjel Mujika Hirigintza Departamentuko arduraduna ere egon zen, eta etxebizitza hauen jabeak ere bertan izan ziren, dokumentuak jasotzeko. Giltzak etxeen eskriturak egiterakoan emango zaizkie.

Kalitate handiko etxebizitzak

Etxebizitza hauen jabeei zorionak emateaz gain, Javier Madrazok Babes

Ofizialeko Etxebizitzen kalitatea azpimarratu zuen. Bere hitzetan, "Euskal Herrian egiten ari gareneko Babes Ofizialeko Etxebizitza guztiak kalitate handikoak dira, ez diote merkatu libreko etxebizitzei inolako inbidiarik". Elgoibarren Babes Ofizialeko 259 etxebizitza daude dagoeneko, eta Madrazok esan zuenez, gehiago egiteko asmoa dute: "Borondaterik ez zaigu falta, behar dugun bakarra etxebizitzak eraikitzeko lurra da". Inaugurazio ekitaldia bukatzeko, etxebizitza hauei dagokien plaka jarri zuten Javier Madrazo eta Migel Anjel Mujikak

[MOTZ-MOTZIAN]

Biluzik zerbitzua goizez izango da uztailan eta irailean

Eli Morenok zuzentzen duen Biluzik Sexologia Zerbitzuak udako ordutegia zein den jakinarazi nahi du. Izan ere, uztailan eta irailean asteazken goizetan izango da, 10:00etatik 13:00etara bitartean. Sexu haremanei buruzko zalantzak eta galderak argitu nahi dituztenak bertara joan ahal dira, Kultur Etxean, goiko solairuan. Telefono zenbakia, 943 74 14 61.

Esperientzia Eskola

Debabarrenako Esperientzia Eskolak bigarren ikasturtea jarriko du martxan. Egitasmo hau lanean ez dauden 50 urtetik gorako pertsonen zuzendua dago eta helburua elkartruckerako gune ireki bat sortzea da, esperientziak elkartrukatzeko. Eskolak urriaren 4an hasiko dira, eta 240 orduko iraupena izango dute. Interesatuak irailaren 23ra arte daukate izena emateko epea. Informazioa 943 820110 (Idoia Uribarri) telefonoan edo esperientzia@debegesa.com helbidera idatziz.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna enpresetan

Debegesak Debabarrenako enpresen gizon eta emakumeen arteko berdintasun planak aurrera eramanean diatzaten kanpaina jarriko du martxan. Proiektua aurrera eramateko, Emakundek eta Bizkaiko Foru Aldundiak Genero Berdintasunean homologaturiko kontsultora baten laguntza izango du. Interesatuak uztailaren 8ra arte dute eskaerak aurkezteko epea. Informazioa (Elena Alonso) 943 820110 telefonoan.

Jubilatuaren Egoitzako ileapaindegia

Udalak jakinarazi duenez, Jubilatuen Egoitzako ileapaindegiaren zerbitzua kontratatzeke lehiaketa deialdia irekita dago. Informazio gehiago, ekainaren 23ko Gipuzkoako Boletín Ofizialean aurkitu daiteke.

Inazio Iriando omenduko dute bihar, uztailak 2



Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatuta, euskal presoak Euskal Herriatzearen aldeko martxa egingo da bihar, uztailak 2, "Estatus Politikoa orain" lemapean. Mutriku (9:00) eta Ermuatik (9:00) abiatuko da martxa hau, eta Elgoibarren egingo du bat, eguerdiko 12:00ak aldera Madalako zubian. Ondoren, eguerdiko 13:00etan, 21 urte kartzelan eman dituen Inazio Iriando euskal preso politikoari omenaldia egingo zaio. Besteak beste, manifestazioa, ekitaldi politikoa, trikopotea eta herri bazkaria izango dira.

Inkesta

Ertzantzak 600 pertsona atxilotu ditu aurten mozkortuta gidatzeagatik.

Zein neurri hartu beharko lirateke jendeak mozkortuta ez gidatzeko?

**COLMENERA
COLMENERO**

Etxekoandrea 60 urte



“Lehenengo gauza ez edatea da, eta horretarako jendea kontzientziatu egin behar da, legea gogortzea eta isunak jartzea alferrikakoa dela iruditzen zait.”

ITZIAR GARCIA

Etxekoandrea
63 urte



“Onena garraio publikoa jartzea da, oso ideia ona iruditzen zait. Gaueko tren eta autobus zerbitzuak gehitu beharko lirateke istripuak gutxitzeko”

**M^a JESUS
IRURETAGOiena**

Etxekoandrea 57 urte



“Gaueko autobusak eta trenak jartzea. Parrandara ateratzen denak edan egiten du, normala da. Autoa etxean utzi eta garraio publikoa erabili beharko litzateke.”

FRANCISCO LORENZO

Jubilatua
60 urte



“Gazteak eta ez hain gazteak kontzientziatu behar dira. Autoa garraio bide bat da, ez zoroaren pare ibiltzeko makina. Parrandara joateko ez da autorik hartu behar.”

SAN PEDRO
J A T E T X E A

jaixak ondo pasau!
Aurrez enkargatuz gero hobe!

SAN PEDRO AUZOA · Tel. 943 740 010 · ELGOIBAR

JAIOAKOAK



Sara Alvarez Vela
[Ekainak 2]
Enrike eta Ibare



Alex Bergua Oteiza
[Ekainak 8]
Aitor eta Lorea



Iker Alonso Urrusolo
[Ekainak 16]
Roberto eta Lucia



Iraitz Fernandez Garate
[Ekainak 24]
Alberto eta Ainhoa



Nora Comejo Erkizia
[Ekainak 28?]
Aitor eta Amaia

Aitana Muñoz Fernandez
[Ekainak 2]
Humberto eta Yolanda

Aimar Alonso Agea
[Ekainak 16]
F. Javier eta Maria

Paula Vieira Fernandez
[Ekainak 17]
Victor eta Beatriz

Haritz Zubimendi Ansola
[Ekainak 27]
Santos eta Lourdes

HILDAKOAK

Rafael Babarro • [74 urte] • Ekainak 16
Pedro Maria Barrutia • [85 urte] • Ekainak 21
Jesus Alonso • [68 urte] • Ekainak 25
Ageda Mata • [64 urte] • Ekainak 27
Ventura Agirregomezkorta • [88 urte] • Ekainak 27

EZKONTZAK

Miguel Luque Sanchez eta Cristina Garcia Torres
[Ekainak 11]
Joseba Etxeberria eta Ariane Arrizabalaga
[Ekainak 24]
Igor Oyarzabal Perez eta Leire Zubiaurre Lizarralde
[Ekainak 25]

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

JUBILATUEN EGOITZAREN INAUGURAZIOA

LAGUN BETIKOAK

MENDAROKO JUBILATUEN BILGUNEA

Gaur, uztailak 1, inauguratuko da Lagun Betikoak Jubilatuen Egoitza berria. Mendaro handitzen ari dela errealitatea da. Gero eta jende gehiago bizi da bertan, komertzioak areagotuz doaz, eta Jubilatuen Egoitza txiki gelditu da. Udalaren laguntzaz, obrak egin eta 81,74m² gehiago lortu dituzte. Gaurkoan Asun Ulazia Jubilatuen Egoitzako presidentearekin hitz egin dugu, eta berak esan digunez, gizonezkoen presentzia handitzeko asmoz egin dituzte obra hauek, badirudi Mendaroko gizonezkoak ez direla Jubilatuen Egoitzara joaten. Lokal berri honetan, mahaiak, aulkiak eta partiduak ikusteko telebista dotore bat jarriko dute.

LAGUN BETIKOAK TXIKI GELDITU DA

Lagun Betikoak Jubilatuen Egoitzak 250 bazkidetik gora ditu gaur egun, eta lokala txiki gelditu zaie. Asun Ulaziak esan digunez, ez dira bazkide guztiak egunero joaten, asko dira agertu ere egiten ez direnak, baina ekintzaren bat antolatzen zutenean lokala txikia zegoen. Lau urte inguru daramatzate Udalarekin harremanetan lokala handitzeko, eta azkenean, beraien ametsa errealitate bihurtu da. Lagun Betikoak egoitzaren ondoan lokal huts bat zegoen, eta biak bat egin dituzte. Obra honek 24.000

euroko kostua izan du. 81,74m²ko lokal berri honetan

Zuzendaritzaren bulegoa jarri dute. Aurrerantzean mahaiak, aulkiak eta pilota edo futbol partiduak ikusteko telebista dotore bat jarriko dute.

EMAKUMEZKOAK NAGUSI

Asun Ulazia Jubilatuen Egoitzako presidenteari esan digunez, Mendaroko gizon jubilatuek ez dira Jubilatuen Egoitzara gerturatzen. Emakumeak dira nagusi: "Karta jokoa, kina eta beste hainbat jolasetan aritzen dira emakumeak eta ez zaie zaratarik gustatzen. Gainera ezin da erre, eta gizon askok erre egiten dute, telebista ikustea nahi izaten dute, eta emakumeek ez diete telebista pizten uzten". Hau guztia kontuan izanik, gizonezkoengan pentsatuz handitu dute lokala.

Asunek denak animatu nahi dituzte bazkide egitea

Jubilatuen Egoitzan parte hartzerantz: "Jubilatuen tabernan kalean ordaintzen denaren erdia ordaintzen da, neguan berogailuarekin epel-epel egoten da hemen, lagun giro bikaina daukagu".

HISTORIA LABURRA

Mendaroko Jubilatuen Egoitza sortzeko ideia 1994. urtean sortu zen. Hiru psikologo gaztek Mendaroko Udalarik jubilatuentzako egoitza baten beharra azaldu zioten, erretiratuek beraien kontuotarako lokal bat izan zezaten, bilerak egiteko, asiadira... azken batean, hirugarren adineko pertsonentzako bilgune baten beharra zegoela azaldu zuten. Mendaroko Udalak inkesta bat egin zuen herrian, eta emaitza aldekoa izan zen. Honen ondorioz, herriko talde batek eta Udalak kudeaketa lanak hasi zituzten, eskualdeko gainontzeko zaharren egoitzekin harremanetan jarri zirenean, eta lan horren ondorioz, 1995. urteko maiatzaren 26an inauguratu zuten Mendaroko Jubilatuen Egoitza. Herriko Enparantzan ireki zuten lokala, eta Lagun Betikoak izena jarri zioten. Lagun giroa da nagusi bertan, eta izenak dioen bezala, laguntasun hori betirako da.





«Jendea ekitaldi desberdinetan parte hartzera animatzea da lanik zailena»

ASUN ULAZIA Lagun Betikoak Egoitzako Presidentea

• **Noiztik zara Lagun Betikoak Jubilatuen Egoitzako presidentea?**

Datorren urteko otsailean lau urte egingo ditut. Aurrez zazpi urtez egon nintzen zuzendaritzan, eta nire aurretik presidente zegoen emakumeak beti esaten zidan hurrengo presidentea ni izan behar nintzela. Ez nion serio hartzen, baina egun batean hilda aurkitu zuten bere etxean. Harek egindako lan guztia ezin genuen alperrik galtzen utzi, norbaitek hartu behar zuen presidente kargua. Inork ez zuen nahi, baina azkenean neuk hartu nuen.

• **Lan zaila al da?** Erraza ez da. Jendeak uste duena baino lan gehiago egin behar izaten da. Ekitaldiak antolatu, diru kontuak apur bat kontrolatu... Gainera gauzak ez dira beti guk nahi dugun bezala ateratzen. Zorionez, zuzendaritza taldeak asko lagutzen dit.

• **Urtean zehar zein ekitaldi antolatzen dituzue?** Gauza asko antolatzen dira, baina gero eta gutxiago. Gantxiloa, bolilloak, hitzaldiak, irteerak, lehiaketa gastronomikoak, pintura ikastaroa... Ekintza oso interesgarriak dira.

• **Nola erantzuten du jendeak?** Jendeak ez du parte hartzen, hori da zailena. Azkenengo hitzaldian bost lagun bakarrik egon ziren. Orain ere, Arraterako irteera bat prestatzen ari naiz, eta banan banan bazkide guztiei deika jardun behar izaten dut jendea animatzeko. Denak azkenengo momentuan apuntatzen dira, eta horrela ezin dira gauzak ondo egin. Irteera askotan bazkaltzeko tokia hartu behar da, monumentuak ikusteko sarrerak...

• **Nola finantzatzen duzue egoitza?** Udalaren dirulaguntzaz finantzatzen da, bazkideen kuotak 8 eurokoak

dira, eta horrekin ezer gutxi egin daiteke. Udalarekin harreman oso ona daukagu. Duela lau urte inguru hasi ginen lokala handitzeko beraiekin harremanetan, eta sekula ez digute ezetzik esan. Denbora luze joan zaigu, baina azkenean lortu dugu.

• **Bazkide kopuruaren eboluzioa nolakoa izan da?** Gaur egun 250 bazkide baino gehiago ditugu, baina beheraka doa. Hasieran askoz gehiago ziren, baina jende asko hil egin da, eta berriak ez da egiten. Kuota oso bajua da, bi pintxo janda kuota baino gehiago gastatzen da ia, baina...

• **Noiz arte presidente?** Ordezkoa bilatu arte nik jarraitu beharko dut. Ondo nagoen artean ez zait gehiegi ardurra, baina ordezkoen bat egon behar da. Datorren otsailerako ea boluntarioren bat azaltzen den!



GAZTIA NAIZ

eItkarrizketa...

Ainhoa Zapata

EIBARKO LA SALLE IKASTETXEKO 16 IKASLEK, BERAIEN ARTEAN AINHOA ZAPATA (17 URTE) ELGOIBARTARRAK, EUROPAKO MUGIMENDUAREN EUSKAL KONTSEILUAK ANTOLATUTAKO "FRANCISCO JAVIER DE LANDABURU CIVIS 2005" SARIA IRABAZI DUTE. GAIA "EUOPAR NORTASUNA ETA KULTURA ANIZTASUNA, EUROPA ZABALDUAN" ZEN ETA EKAINAREN 20AN, BILBOKO EUSKALDUNA JAUREGIAN OSPATU ZEN EKITALDIAN JASO ZUTEN SARIA. EPAIMAHAIKO KIDEEK AIPATU ZUTENEZ OSO MAILA ALTUKO LANAK IZAN DIRA GUZTIAK BAINA LEHEN SARIA EIBARKO LA SALLEKO IKASLEEK AURKEZTU ZUTEN EUROPAKO KONSTITUZIOARI BURUZKO LANAK MEREZI ZUELA ERABAKI ZUTEN. HONI ESKER, NESTOR BASTERRETXEAREN ARTE-LAN BAT ETA BRUSELA, LUXEMBURGO ETA STRASBOURGERA BIDAIA BAT IRABAZI DUTE. AINHOAK AZALDU DIZKIGU SARI HONEN NONDIK NORAKOAK.

“Inor gutxik daki ezer Europar Konstituzioaren gainean”

Nolatan erabaki zenuten Francisco Javier de Landaburu Civis sarian parte hartzea?

Zientifiko Tekniko alorrean ikasten ari naiz Batxilergoko lehen mailan Eibarko La Salle ikastetxean. Berez, Batxilergoko bigarren mailakoei zegokien lana egitea, baina selektibitatea prestatu beharra zutenez, guri eskaini ziguten aukera Filosofia eta Erligioko irakasleek. Bi irakasgai horietako klase orduak aprobetxatu genituen lana egiteko, baina klase orduetatik kanpo ere makina bat ordu sartu behar izan ditugu. Aste Santuko oporrak ere lanean pasa genituen. Otsailean hasi ginen eta ozta-ozta amaitu genuen eperako.

Noiz jakin zenuten zuen lana saritu zutela?

Idatziz aurkezteaz gain Power Point bat ere prestatu genuen eta Bilboko Euskalduna jauregian aurkeztu genuen jendaurrean. Egun berean jakin genuen gure lana izan zela lehen sarirako aukeratua. Telebistan ere

BARREN



agertu ginela esan didate, baina ez dakit saria hartu genuen momentua agertzen den, pozaren pozez ederra antolatu genuen-eta. Eskandalo bat izan zen.

Gela osoaren artean egindako lana izan da, ezta?

Bai, 20 lagun gaude gelan eta lauk izan ezik beste guztiok parte hartu dugu. Gutxienez 15 laguneko taldeak izan behar ziren.

Europar Konstituzioa izan zen aukeratu zenuten gaia.

Bai, Europar Konstituzioan zentratu gara. 60 orrialdeko txosten bat egin dugu. Bertan, konstituzioa zer den azaltzen saiatu gara eta galdeketak egin ditugu. Europako Konstituzioa zer den ba al zekiten galdetu genien lehenik La Salleko ikasle guztiei. Ondoren, Eibarko PPko eta PSOEko ordezkariak elkarriketatu genituen gai honen inguruan. PNV, Ezker Batua eta EA alderdietako ordezkariekin ere ahalegindu ginen berba egiten, baina

beranduegi jaso genituen beraien erantzunak. Azkenik, botoa emateko aukera dutenei ere egin genien galdeketa eta baita Europara kanpotik etorritako atzeritarrei ere.

“Talde lanean arituz, gauzak askoz hobeto ateratzen direla ikasi dut”

Lana egin ostean, zein izan da atera duzuen ondorio nagusia?

Inork gutxiak dakiela ezer Europar Konstituzioaren inguruan, ez dutela behar besteko informaziorik, alegia. Batez ere botoa emateko aukera dutenen ezjakintasunak harritu ninduen ni.

Zer izan da lan honetatik zailena?

Gure arteko antolamendua izan da



zailena, 16 pertsonak elkarrekin lan egitea. Hasieratik, gaia aukeratzetik, kosta zitzaigun ados jartzea, pentsa!

Eta zer irakatsi dizu lan honek?

Europar Konstituzioari buruz ezer gutxi ikasi dut, nahaspila handi bat iruditu zaidalako. Gutxienez, nire kasu berean beste asko daudela egiaztatzeko balio izan dit. Lan honek, ordea, taldean lan egitea zer den irakatsi dit. Ondo antolatuz gero eta talde lanean arituz gero, gauzak askoz hobeto ateratzen direla ikasi dut.

Zure etorkizunerako baliagarria izan daitekeela uste al duzu?

Litekeena da bai, Enpresa Administarritza ikasteko asmoa idaukat, beraz, era honetako lanak ondo daude.

ISABEL ZUAZO PINTOREA

«Marrazten hasi aurretik, mihisearekin hitz egiten dut»



41 urteko eibatarra da Isabel Zuazo. Arte Ederrak ikasi zituen eta azken 9 urteotan Egur arte eskolan dihardu pintura klaseak ematen. Barceló eta Tapiés edo Kiefer gustuko dituen emakume honek pintura abstraktoa atsegin du gehien eta, aitortu digunez, mihisearekin elkarrizketa egotea da koadroa sortzeko estreinako pausoa.

👤 9 urtez Egurren. Bada denbora.

Bai, bada. Garai batean Eibarko Diseinu Grafikoko enpresa batean egon nintzen lanean baina hura amaitu zenean Elgoibarren klaseak emateko aukera eskaini zidaten eta gaur arte. Oso-oso giro polita dago, lagun talde bat gara eta hori ikaragarri eskertzen da.

👤 Ikasle artista asko al dituzu?

Dezente, garaiaren arabera izaten da baina batez beste 25 ikasle inguru daude, 12 urtekoa gazteena eta 80 urtetik gorakoa nagusiena. Gehienak deskonektatzera etortzen dira eta psikologia handia izan behar duzu irakasle bezala bakoitzak zer nahi duen jakin eta klasea modu batera edo bestera emateko.

👤 Energia kentzen du nolabait?

Klaseak emateak energia kendu egiten du baina pintatzeak eman egiten dizu. Oso garrantzitsua da mihisearekin komunikazioa egotea. Ni, marrazten hasi aurretik mihise zuriaren aurrean jartzen naiz eta berak zerbait esan arte ez dut ezer margotzen, ezta kolore bat aukeratu ere. Elkarrizketa sortzen den unean hasten da marrazte prozesua. Lehenengo artistaren eta

koadroaren artean eta gero obraren eta ikuslearen artean egon behar da komunikazioa.

👤 Arte abstraktoa atsegin duzu, ezta?

Bai, koloreak eta abstrakzioa. Azken batean, inportantea originaltasuna da, nortasuna eta estilo propioa izatea. Ikasle gehienek imitatu egiten dute beste egileen lanak eta nik behin eta berriz esaten diet

garen eta, azkenean, norberak bere estilo propioa sortu.

👤 Saldu ere egiten al dituzu lanak?

Bai eta onartzen dut asko kostatzen zaidala. Ikaragarizko kariñoa hartzen diezu zure lanei eta alde batetik pozgarria bada ere besteek zure lana estimatzen dutela jakitea, bestetik, nostalgia antzekoa ere sentitzen da koadro hori berriz ikusiko ez duzula jakitean. Beste kontu bat dira enkarguzko lanak.

👤 Zergatik?

Hor ez delako hainbeste sartzan zure sormena. Bodegoi bat egiteko eskatzen badizute, hori egin eta listo. Edo erretiratu kasuan, argazkia ematen didate eta hortik abiatzen naiz ahalik eta espresibitate gehien emateko.

👤 Auto-erretiraturik egin al duzu?

Momentuz ez, nahiago besteen aurpegia margotu edo abstrakzioa lantzea. Halere, onartzen dut askotan ez dudala gogorik izaten pintatzeko. Akaso fabrika batetan egongo banintz 8 orduz desiatzen egongo nintzen etxera iritsi eta margotzen hasteko baina klaseak eman ostean berriz ere margoak hartzea ez da gauza bera.

«Poza eta pena ematen du koadro bat saltzeak»

somena landu behar dutela, irudimena.

👤 Barrutik ateratzeko lehenengo kanpoan zer dagoen ikusi beharko da.

Bai, noski. Besteek zer egin duten ikusi, zer gustatzen zaigun jakin, zertarako gai

IDOTORBE BAILARAKO JAIK

Motokrossa, bertsoak eta idi demak San Pedroko jaietan

Sanmigeldarren Eguna eta Altzolako San Juan jaien ostean, Idotorbe (San Pedro) bailarako jaiak hartu dute lekukoa. Martitzenean hasi ziren jaiak auzotarren arteko afari eder batekin. Eguaztenean, berriz, santuaren omenezko meza eta prozesioa ospatu ostean, auzotarrak eta jubilatutak bildu ziren mahai baten inguruan. Asteburuan ere izango da non aukeratu, egitaraua zabala baita. Hasteko, zapatuan, hilaren 2an, Manu Alvarezen Omenezko II. Motokross proba jokatu da frontoi inguruko zelaietan. Euskadiko Txapelketarako proba puntuagarria izango da. Iluntzean ohiko bertso afaria antolatu dute. Sebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano



bertsolariekin. Ondoren, "Gardoki" taldeak alaituko du giroa eta txokolatadarekin eguna ondo bukatzeko aukera izango dute. Domekan, Mintxeta eta Egi harrijasotzaile elgoibartarren erakustaldia izango da meza ostean eta arratsaldean idi-demak jaiari amaiera emateko.

Edu Arrillaga eta Sabin Osoro argazkilarien lanak Bergara eta Deban ikusgai

Uztailaren 24ra bitartean Edu Arrillaga argazkilaria elgoibartarraren "Sokamuturra" saileko 34 argazki ikusi ahal izango dira Bergaran, Aroztegi Aretan. Hamar urtetako (1992-2001) lanaren fruitua da "Sokamuturra" argazki erakusketa. Argazki bakoitzaren azalpenak emanez bisitaldi gidatua eskainiko du Arrillagak, gaur, hilak 1, Uztailaren 15ean, berriz, Iñaki Azkunek sokamuturraren gaineko hitzaldia emango du.



Bestalde, Sabin Osorok Yemenera egin zuen bidaian ateratako argazkiekin "Yemen, arabiarren eskuak lagun" erakusketa osatu zuen. Elgoibarren duela gutxi jarri zuen erakusgai eta orain debarrek izango dute ikusteko aukera Debako Kultur Elkartearen erakusketa gelan (Ostolaza kalea). Uztailaren 9ra arte (asteleheneretik larunbatera 19:00-21:00 eta igandetan: 12:00-14:00).



Gaur, uztailak 1, hasiko dira aire libreko zine emanaldiak



Eguraldiak laguntzen badu, Plaza Handian jarritako zine pantaila erraldioak hartuko du Heriko Antzokiaren lekua udaran. "El Reino de los cielos" Ridley Scott-en azken produkzioarekin hasiko da aire libreko denboraldia, gaur, hilak 1. Zapatuan, berriz, "Sahara" filma botako dute. Guztira 14 filme izango dira eta "Star Wars: La venganza de los Sith" izango da azkena abuztuaren 6an. Pelikula guztiak gaueko 22:30ean hasiko dira.

Sabel Dantza ikastaroa Olaizaga kiroldegian

Udal Kirol Patronatuak "Sabel Dantza" ikastaroa antolatu du Olaizaga kiroldegian. Uztailaren 4an hasi eta 29an

bukatuko da. 4 saioak asteleheneretan izango dira, 20:00etatik 21:30etara. Kiroldegian eman dezake izena.



karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49



TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta banakako terapia)
PSIKOLOGIA

HARREMAN ARAZOAK:
Bikotesarekin, familiararekin edo ikideekin

UMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK

ANSIETATEA

DEPRESIOA

ESTRESA

ELIKADURA ARAZOAK

AUTOESTIMA

miriam majika 675 61 78 55 AURRIAN EDUREN URTELAGA BALLEA-1.
alinoa basurko 615 70 37 25

JOSE LUIS INSAUSTI C.D. ELGOIBARKO PRESIDENTEA

«Talde bizkaitarrek gure aurrekontua bikoizten edo hirukoizten dute»



Jose Luis Insaustik C.D. Elgoibarko presidentea izaten jarraituko du beste urtebetez. 3. denboraldia izango da honakoa eta aurtengoaren errepasoa egiteaz bat, klubak egun dituen beharretaz berba egin digu.

👉 Beste urtebetez karguan. Azkena?

Bai, zalantzarik gabe, aurtengoa azkena. Hiru hilabetez jarri dut abisua egunkarietan, baina inor aurkeztu ez denez, nahiago izan dut beste urtebetez jarraitu kluba Udalaren eskuetan laga baino.

👉 Eta kluba Udalaren eskuetara pasako balitz?

Ikusi egin beharko litzateke, baina Udala ez zela egun dauden 9 taldeak mantentzeko gai izango uste dut. Haundia 3. mailan mantentzea ere zailagoa izango litzateke, herriko jokalariekin eta soldatarik ordaindu gabe aurrera egin beharko bailuke. Dena dela, datorren urterako norbait aurkeztuko den itxaropena daukat.

👉 Zergatik ez da inor aurkezten?

Inor gutxi aurkezten da musutruk egiten den lanera. Dirurik tartean ez badago, inor ez dago prest.

👉 Lan asko ematen al du kluba zuzentzeak?

Bai. Lan, denbora eta baita haserre asko ere. Aurrekontua osatzea da buruhausterik handiena, atez ate dirua eskatu eta ezetz esaten baitizute. Herriko komertzio eta lantokietatik pasatzen naiz eta Mintxetan publizitate estatikoa jartzeagatik 400 euro urtean gehiegizkoa iruditzen zaie. Herriak taldea 3. mailan ikusi nahi du, ordea, eta aurrekontuak gora egiten du. Kluba antolatuta dagoen eran defizitarioa da.

Jenderik apenas igotzen denez Mintxetara, beste bide batzutatik lortu behar da dirua, baina ez dugu lortzen. Hala ere, badut beriz saiatzeko asmoa.

👉 Gastuak murriztea izango da helburu nagusienetako bat?

Bai. Diru sarrerak antzerakoak izango direnez, gastu fijoak murrizten saiatuko gara, kilometrajea, mediku eta masajista gastuak, esaterako. Jokalarien soldatak ezin ditugu ukitu. 3. mailako baxuenetakoak dira (25.000 pezeta hilean) eta hori kenduz gero, are zailagoa litzateke jokalariai gurera ekartzea. Talde bizkaitar guztiak gure aurrekontua bikoizten edo hirukoizten dute. Hori bai, Bizkaiko futbol zelaiak publizitatez gainezka daude, babes handiagoa jasotzen dute.

👉 Gero eta bazkide gutxiago ditu klubak?

Bai, urtetik urtera gutxiago. Orain 550 daude, baina Elgoibar moduko herri batek 1.000 bazkide izan beharko litzuke. Bazkide kuota urteko 75 euro dira eta ez jarraitzea erabaki dutenek arrazoi ekonomikoengatik izan dela esan didate.

👉 Hasiak al zarete hurrengo denboraldirako jokalariai fitxatzen?

Dena martxa onean doa. Bi jokalarik futbola lagako dute: Asier Arenas eta Mikel Elgoro elgoibartarrek. Beste lau jokalarik, beriz, taldea utziko dute. Entrenatzaileak aurtengo taldearen oinarria izan denarekin jarraitzeko aukera izango du.

«Inor gutxi dago prest musutruk lan egiteko»

XXI. NAHASTE BORRASTE

Jose Felix Iglesiasek nagusitasunez irabazi zuen proba



32 lagunek hartu zuten parte, batzuek moztarro eta guzti.

Jose Felix Iglesias "Txefe"k Nahaste Borrasten lortzen duen bigarren garaipena eskuratu zuen barixakuan, ekainaren 24an. Marka aparta ezarri zuen, 18 minutu eta 50 segundu. Ibilbide honetan Martin Dominguezek 2003an ezarritako errekorretik 15 segundura geratu zen. Jose Antonio Ruiz sailkatu zen bigarren

(18'57") eta David Conde hirugarren (18'58"). Lehen emakumezkoa Ainhoa Lendinez izan zen bigarren urtez, 22'40" denborarekin. Inoiz baino jende gehiagok, 32 lagunek, parte parte du aurten, tartean 3 emakumek. Beteranoen mailan Iñaki Ulazia, Sabin Zenaruzabeitia eta Antonio Fernandez nabarmendu ziren.

Ibon Gabilondo 25. postuan Donostiako Triatloian

Triatleta elgoibartarrak 25. postua eskuratu zuen Donostiako Nazioarteko Triatloian eta sailkapen nagusiko 13. euskalduna izan zen. Kontxako badian 1,5 kilometro igerian eginez hasi zituzten lanak 500 parte hartzaileek. Gabilondo 61. postuan atera zen uretatik. Bizikleta hartu eta Igeldoko Faraa eta Orioko gaina zeharkatzen zituen 40 km-tako zirkuitoan makina bat kirolari aurreratzea lortu zuen. Antxintxikako azken proba: Alderdi Eder eta Ondarretako Tenisa batzen zituen 5 km-ko zirkuitoari 2 itzuli eman ostean, 2 ordu eta 17 minutuko denbora ezarri zuen helmugan, iaz baino 2 minutu gutxiago eta 12 postu aurrerago. Iñaki Konde izan zen Urgazi Triatloi Taldeko bigarren ordezkaria. 217. postuan sailkatu zen, baina 3. geratu



zen bere kategorian (50 urtetik 60 urtera artekoak). Jesus Mari Agirretxek Eibarko taldearekin egin zuen proba eta 190. postuan sailkatu zen. Hektor Llanos gasteiztarra izan zen irabazlea 2 ordu, 2 minutu eta 27 segunduko denborarekin.

Morkaikorekin Europako Haitzetara joateko aukera

Europako Haitzetan (Picos de Europa) trabesia antolatu du Morkaikok uztailaren 15etik 17ra. Bi egunetako trabesian hegoaldeetik iparraldera zeharkatuko dituzte mendi ikusgarriok. Fuente De herrian hasi, Naranjo de Bulnes (Picu Urriellu) ezagunaren azpian gaba pasa eta Sotresen bukatu. Hainbat mendi igotzeko aukera izango da norbere gogo eta gaitasunaren arabera: Peña Vieja, Pico Tesonero, e.a. Astelehenetan eta ostegunetan eman daiteke izena Morkaikoren egoitzan, 19:00etatik 20:30era. Informazio gehiago www.morkaiko.net helbidean.



San Migelgo III. Rallysprinta domeka honetan jokatuko da

San Migelgo errepideak III. Rallysprinta hartuko du domekan, uztailaren 3an. Bideak, 11 km-ko luzera du eta 3 aldiz egingo da Etxebarria-Elgoibar norantzan. Etxebarriko eta Markinako gazte batzuren ekimenez sortu zen proba duela 3 urte eta ordudanik harrera bikaina izan du ikusle eta parte hartzaileen artean. Iaz, esaterako, parte hartzaileen zerrenda rallysprint denboraldiko onenetarikoa izan zen.



Merkatua

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

[LANA]

ESKAERA

- Emakumea nagusiak zaindu edo jate-txe eta tabernetan ontziak garbitzeko. Papelak ditut. ☎ 690 701118
- Emakumea nagusiak, haurrak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 943 74 03 31
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. Elkarteak, portalak, tabernak... ☎ 646 235 195
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. Elkarteak, portalak, tabernak... ☎ 639 88 20 04
- Neska gaztea uztailean lan egiteko prest. ☎ 689 584 285
- Tituludun soldadorea eta erakuntzan 2. mailako ofiziala den mutila lanerako prest. ☎ 943531745/661225149
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 686 57 82 28
- Ingeles magisteritzako ikasleak klaseak emango lituzke, edo umeak zaindu. ☎ 636 62 31 85
- Mutila edozein lan egiteko prest. ☎ 647 27 55 65
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarrekin, portalak, tabernak, etxeak... ☎ 676 62 38 43
- Senar-emaztea lanerako prest. Nagusiak edo haurrak zaindu, lorategi lanak, pintura... ☎ 676 85 30 28

- Emakumea etxeak garbitzeko prest. Egun solteak. ☎ 943 74 22 01 (Araceli)
- Mutila lanerako prest. ☎ 665 12 98 77

ESKAINITZA

- Kamareroak behar dira ostalaritzan lan egiteko. ☎ 699 00 51 35
- Ileapaintzailea behar da hilabete batzutarako. Egun erdiko kontratua. ☎ 655 511 588 (lan orduetan)
- Sukaldaria behar da. ☎ 943 741626
- Kamareroa behar da barran lan egiteko. ☎ 652 77 82 60
- Tabernarako kamareroa behar da lanaldi osorako. ☎ 670 25 04 29
- Peitsona bat behar dut udan etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. ☎ 687 114 707

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- Etxea salgai San Pedro de Pinatar-en (Mar Menor). 2 logela, sukaldia, jangela, komuna, terraza, aire egokitua, garaieja aukeran. ☎ 627 377 543
- Etxea salgai Donostian (Antigu). 104m². Egongoela handia, 2 logela. usuarios.lycos.es/pisua helbidean argazkiak. ☎ 943 377 292 (21.30-22.30)
- Etxea salgai Pedro Muguruzan. Sukaldia, komuna, egongela, 2 logela, balkoia, terraza eta trasteroa. 156.000 euro. ☎ 600 300 682
- Etxea salgai Marbellan. Atiko duplex-a, amueblatuta, garaiejaekin. 2 gela, binugela eta komuna, egongela, sukaldia. 14m²ko terraza, igerilekua, eta lorategia. Hondartzatik gertu. ☎ 699 17 98 72
- Etxea salgai San Frantzisko kalean. 86m². Egongela, sukaldia, komuna, bi logela, trasteroa, galeria, bistak. 150.000 euro. ☎ 666 04 27 10
- Etxea salgai San Roken. Sukaldia, 3 logela, egongela, 2 komun, trasteroa, bi balkoi eta ganbara. Garaieja aukeran. ☎ 943 74 88 53
- Pisua salgai Madalan. Bi logela, garaieja eta trasteroa. ☎ 660 306 301

ALOKAIRUA

- Pisu txiki bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 677 09 70 15 (Carmen)
- 5 logelako etxea alokairuan Peñiscolan. Oporrak, asteburuak, zubiak. Itsasora eta mendira bistak. ☎ 677780680/964491022
- 3 logelako pisua alokairuan Peñiscolan. Oporrak, asteburuak, zubiak. Igerilekua, mini-golf, toki berdeak... ☎ 677780680/964491022
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 646 235195
- Pisua alokatzen da Torreveijan. Igerilekua, hondartza 600 metrora. ☎ 628 58 45 35
- 6 laguntzako bungalow-a alokatzen dut Alcoceberren (Las Fuentes). Uztaile eta iraila. Igerilekuarekin, itsasotik 50metrora. ☎ 680 18 39 07
- Apartamentua alokatzen dut Conilen (Cadiz). Bateles hondartza ondoan. Guztiz jantzita. ☎ 680 44 26 68
- Apartamentua alokatzen da Saloun, Novelty eraikuntzan. Aire egokitua, igerilekua eta garaieja. ☎ 629 98 98 99
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 615 713 440
- Logela edo pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 647 27 55 65

[GARAJEAK]

- Garaie itxia salgai Madalan. 28 m² ☎ 646 50 28 66
- Garaie itxia salgai Leku Ederren, 4. solairuan. ☎ 606 635 166
- Garaie itxia alokatzen da San Roken. 34 m² ☎ 943 74 17 02

[SALEROSKETAK]

- Trikitixa akordeoia salgai. Zero Zette, model B. Beltza. Berria. 900 euro. ☎ 656 77 26 36
- Ford Fiesta XR2, 1800, 16v. salgai. SS-AM. ☎ 639 949970
- PS2ko 13 joku orijinal salgai. Bakoitza 20euro. ☎ 627889259
- Citroen Xsara salgai. 36.000km. 9346 BSX. 2002. urtekoa. ☎ 699436295/659 563686
- Pasiatzeko gurpil aulkia, etxean egotekoa, airezko koltxoia, 90zm-ko somier artikulatu elektrikoa, barandila jokua salgai. Egoera onean. ☎ 627432361
- Bikientzako kotxesilla salgai, Inglesina markakoa. ☎ 6361295 43
- Spitz alemaniar txakur kumeak salgai. Lulu de Pomerania, arra edo emea. ☎ 943 81 18 38
- Katu persak salgai. ☎ 680442668
- Hyundai AC 1300 autoa salgai. 43.000km. Merke. ☎ 943 74 35 78
- Ezkon-soinekoa eta osagarriak salgai. Marfil kolorekoa. 42-44 taila. 480 euro. ☎ 943 08 00 81/615 72 64 30
- Ford Transit markako furgoneta salgai. 2000 euro. ☎ 607 46 80 14

[PARTIKULARRAK]

- DBH eta LHko klase partikularrak ematen dira. ☎ 658 71 08 73

[BESTERIK]

- Erlouju beltza galdu dut King-Kongetik San rokera bidean. ☎ 943 74 26 36
- Eretxinditik liburutegira bitartean txaketa marroia galdu dut. ☎ 699198259
- Gozotegia traspasatzen da Maiala ondoan. Prezio ona. ☎ 943 74 28 75

Debabarrenako telebistak langileak behar ditu:

Kudeatzailea:

- Eskatzen da:**
 - Enpresa administrazio ikasketak.
 - Taldeak koordinatzeko eta ekipo-lana garatzeko trebetasuna.
 - Marketing ezagutza.
 - Harremanetarako gaitasuna.
- Eskaintzen da:**
 - Egun osoko kontratua.
 - Enpresa berri bat aurrera ateratzeko aukera.

Erredaktore burua:

- Eskatzen da:**
 - Kazetaritza ikasketak.
 - Ikus-entzunezko munduaren ezagutza.
- Eskaintzen da:**
 - Egun osoko kontratua.
 - Enpresa berri bat aurrera ateratzeko aukera.

Tekniko-arduraduna

- Eskatzen da:**
 - Ikus-entzunezko ikasketak.
 - Telebisten funtzionamenduaren ezagutza.
 - Kazetaritza ezagutzak.
- Eskaintzen da:**
 - Egun osoko kontratua.
 - Enpresa berri bat aurrera ateratzeko aukera.

Teknikoa

- Eskatzen da:**
 - Ikus-entzunezko ikasketak.
 - Telebisten funtzionamenduaren ezagutza.
 - Kazetaritza ezagutzak.
- Eskaintzen da:**
 - Egun erdiko kontratua.
 - Enpresa berri bat aurrera ateratzeko aukera.

Orokorrean:

- Autoa edukitzea derrigorrezkoa izango da lanpostu guztietan.
- Hasierra batean derrigorrezkoa ez izan arren, langile guztiek prestutasuna izan beharko dute telebistako lan teknikoan trebatzeko (kamara erabilpena, irudien editaia...)
- Euskarazko telebista izango denez, ezinbestekoa izango da euskara ondo jakitea.
- Hobetsiko da eskualdekoa izatea eta lan-erperientzia izatea.

**Kurrikulum-ak bidali
uztailaren 11-rako**

Pil-Pilean Kultura Elkarteak, 27 Postakutxa, Soraluze 20590.
Emaila: pilpilean@euskalnet.net Edo Elgoibarko Izarra elkarteak, Ubitarte 16.

[ZORIONAK]



† Zorionak **Imanol** uztailearen 4an 10 urte egingo dituzulako. Muxu bat familiakoen partez.



† Zorionak **Paula** uztailearen 4an 8 urte egingo dituzulako. Ondo pasa Aubixan!



† Zorionak **panpoxa** urte potolo bat betetzen duzulako. Muxu bat ikastolako laguntxoaren partez.



† Zorionak **Mikel** uztailearen 1ean 6 urte egin dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Antonen partez.



† Zorionak **Olaia**, bihar, uztaileak 2, 5 urte egingo dituzulako. Julene eta familiako guztien partez.



† Zorionak **Gorkal** Ondo pasa txo! RTSko gaueko moxoluen partez. Ala Madrid!!! Eta Aintzane noski!



† Zorionak **Antionioli** Egun zoragarria pasa RTSko gaueko ganoragabekuen partez.



† Zorionak **Veronica**, uztailearen 4an 9 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta Fernandoren partez.



† Zorionak **Ana** uztailearen 3an 11 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta Rakel eta Nerearen partez.



† Zorionak etxeko **"terremotoari"** 1. urtebetzean. Patxo haundi- haundi bat, amatxo, aiatxo eta June-ren partez.



† Zorionak **Sorgintxoak!** Ondo pasa 3. urtebetzean. Besarkada goxo bat eta muxu potolo bat bioi etxeko guztien partez.



† Zorionak **Leire** eta **Igor**! Oso ondo pasatu dugu, eta hurrengoan ere inbitatu! Patxo bat lagunen partez.



† Gure zorionik beroenak **Unai** eta **Jonerenzat**. Familiakoen partez.



† Zorionak **bikote!** Lau muxu handi zuen artean banatzeko ikastolako laguntxoaren partez.



gazte
informazioa

JARDUERAK

MUSIKA UDALEKUAK

Donostiako Musika Hamabostaldiak Musika Udalekuak antolatu ditu 4 urteik 12ra bitarteko umeentzat. Abuztuaren 1etik 12ra izango dira, goizez. Izena emateko epea: uztaileak 16. Prezioa: 103 euro. Informazioa: 943 003170 edo www.quincenamusical.com.

LEHIAKETAK

ARGAZKI LEHIAKETA

Zumaragako eta Urretxuko udalek argazki lehiaketa antolatu dute. Koloretan eta zuri-beltzean aurkeztu ahal dira lanak eta sariak 90 eta 210 euro biartean dira. Epea: irailak 9. Informazioa: 943 729022 www.zumaraga.org

IKASTAROAK

NAFARROAKO ANTZERKI ESKOLAREN UDAKO IKASTAROAK

Egitaraua: Bat-bateko match eta antzerkiko bat-bateko teknikak. Abuztuaren 16tik 19ra, 9:00etatik 14:00etara: Irakaslea: Borja Cortés. Antzerki-lanak sortzea. Abuztuaren 22tik 26ra, 10:00etatik 14:00etara. Irakaslea: Eusebio Calonge. Clown. Abuztuaren 29tik irailaren 2ra, 9:00etatik 14:00etara. Irakaslea: Pepa Plana. Eugenio Barbaren antzerki-antropologiaren hastapenak. Abuztuaren 29tik irailaren 2ra, 16:00etatik 21:00etara. Irakaslea: Lluís Masgrau. Matrikula egiteko epea: abuztuaren 1etik 12ra. Informazioa: 948 229239 edo www.laescueladeteatro.com

LANA

INGURUMEN TEKNIKARIA

Zarauzko Udalak Ingurumen Teknikaria, kontratatzeko oposizio-lehiaketa egingo du. Epea: uztaileak 17. Informazioa: 943 005100 www.gipuzkoa.net

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA

Azpeitiko Udalean Administrazio Kudeaketako 3 lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketarako deialdia. Epea: uztaileak 18. Informazioa: 943 157200 edo www.gipuzkoa.net

5 UDALTZAIN

Zarauzko Udalean 5 udaltzain lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketarako deialdia. Baldintzak: 18 eta 32 urte. Baldintza fisikoak. Eskola Graduatua, lanbide Heziketako 1. maila edo baliokidea. 2. hizkuntza-eskakizuna. B motako gidabaimena. Epea: uztaileak 18. Informazioa: 943 005100 edo www.gipuzkoa.net

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.

e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es

☎ 943 741 461

🕒 Astelehen-astearte/ostegun-ostiral
16:00-19:00

Zerbitzuak



[OKINDEGIA]



3 igandea BOLINTXO



[FARMAZIAK]

	EGUNEZ	GAUEZ	KANPOKO FARMAZIAK
1	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	IBÁÑEZ Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
2	Yudego	Fernandez	
3	Fernandez	Fernandez	FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
4	Yudego	Yudego	
5	Zabaleta	Zabaleta	
6	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	ZABALETA Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
7	Ibañez	Ibañez	
8	Bidasolo	Bidasolo	



[TELEFONOAK]

OSASUNA	BESTELAKOAK
Anbulatorioa 943 03 26 10	BARREN astekaria 943 74 41 12
Larrialdiak 943 46 11 11	Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
Planning-a 943 74 29 50	Kiroldegia 943 74 44 15
Alkoholiko Anonimoak 943 74 03 85	Kontsumo Bulegoa 943 74 30 88
D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22	Liburutegia 943 74 35 25
Gurutze Gorria 943 74 38 64	Musika Eskola 943 74 21 45
Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00	Mintxeta 943 74 43 15
Odol Emaileak 943 74 39 36	Parrokia 943 74 08 42
	Postetxea 943 74 15 47
	Gazte Informazioa 943 74 14 61
	KZ gunea 943 74 88 28
UDALA	ADINEKOEN ETXEA
Euskara Zerbitzua 943 74 43 66	San Lazaro Egoitza 943 74 02 96
Kultura Zerbitzua 943 74 21 58	Zaharen Biltokia 943 74 05 26
Hirigintza 943 74 43 84	Eguneko Zentroa 943 74 45 65
Epaitegia 943 74 16 30	
Haziena 943 74 44 14	IKASTETXEA
Mendaroko Udala 943 03 32 82	Haur Eskola 943 74 21 41
Ongizate zerbitzua 943 74 10 08	HHI (EPA) 943 74 08 80
Udaletxea 943 74 10 50	Herri Eskola 943 74 08 79
Udalzaingoa 943 74 13 94	I.M.H. 943 74 41 32
Debemen 943 74 40 67	Institutua • Arreiturre 943 74 80 19
	•Ezenarro (Meka) 943 74 80 19
GARRAIOAK	Ikastola 943 74 44 41
Eusko Trenbideak 943 74 04 42	Pilar Ikastetxea 943 74 13 31
PESA (Eibar) 902 10 12 10	
Taxi geltokia 943 74 08 98	
Bizkaibus 902 222 265	



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak:

7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40

Larunbatak:

7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00

Igandek eta jaiegunak:

9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak:

6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.

Larunbatak:

8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45

Igandek eta jaiegunak:

12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak:

6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuak eta jaiegunak:

7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak:

6:55ean hasita, ordi erdira. Azkena 21:55.

Asteburu eta jaiegunak:

7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

IDOTORBE (SAN PEDRO) BAILARAKO JAIK

Uztailak 2 (zapateria)

16:00 Manu Alvarezen Oroimezko II. Motokross proba

21:00 Bertso afaria. Sebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano

Ondoren, gaupasa "Gardoki" taldearekin Eguna ondo bukatzeko, txokolatada

Uztailak 3 (dometia)

10:30 Meza

12:00 Mintxeta eta Egi harrijasotzaileak

14:00 Auzotarren bazkaria

17:30 Idi-Demak

SINOPSISIAK

«El Reino de los cielo»

[1 BARIXAKUA]

19:30 INSTITUTUKO DIPLOMA BANAKETA

Herriko Antzokian

[2 ZAPATUA]

12:00 ESKUALDEKO MARTXARI ONGI ETORRIA

Maalako zubian

Leloa: Estatus Politikoa Orain Euskal

Presoak Euskal Herrira

Ondoren, ekitaldi politikoa Plaza Handian

Antolatzailea: Amnistiaren Aldeko Mugimendua

13:00 INAZIO IRIONDORI OMENALDIA

Plaza Handian

Ondoren, trikipotea eta herri bazkaria Maalan

Antolatzailea: Amnistiaren Aldeko Mugimendua

[3 DOMEKIA]

15:30 SAN MIGELGO III. RALLYSPRINT-A

San Migelgo errepidean

Oharra: errepidea 14:00etan itxiko da.

[7 EGUENA]

8:00 SAN FERMINETAKO ENTZIERROAK ZUZENEA

Kultur Etxean

Egunero uztailaren 14ra arte

10:30 SAN FERMIN TXIKI

San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar

Ondoren, poniak eta zezentxoak eta txorizo jana

Plaza Handian

Antolatzailea: AtxutxiamaiKa

Aisialdi Taldea

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR PLAZA HANDIAN

«El Reino de los cielos»

1, barixakua: 22:30

«Sahara»

2, zapatua: 19:30-22:30

«Un Canguro super duro»

8, barixakua: 22:30

EIBAR, UNZAGA

«No sos vos, soy yo »

1, barixakua: 19:30-22:15

2, zapatua: 17:00-19:30-22:15

3, domekia: 17:00-19:30-22:15

4, astelehena: 19:30-22:15

5, martitena: 19:30-22:15

6, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Batman begins»

1, barixakua: 17:00-19:45-22:30

2, zapatua: 17:00-19:45-22:30

3, domekia: 17:00-19:45-22:30

4, astelehena: 19:30-22:15

5, martitena: 19:30-22:15

6, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENeK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«Sahara»

Zuzendaria: Ridley Scott.

Antzezleak: Orlando Bloom, Eva Green, Jeremy Irons.



Ibelingo Godofredok bere seme Balian bilatzeko hasiko duen bidaiak epikoa kontatzen du filmak. Balian semea eta emaztea galdu dituen errementari gazte frantziarra da. Barruak kizkaltzen dizkion minari aurre egin eta Godofredorekin batuko da Lurralde Santuan bakea ezartzeko helburuarekin. 1186. urtea da eta bigarren eta hirugarren Gurutzaden artean egon den su-etenak iraun duen bitartean kristau, musulman eta judutarrek elkarrekin bakean bizitzea lortu dute Jerusalemen.

Zuzendaria: Breck Eisner

Antzezleak: Penelope Cruz, Matthew McConaughey, Steve Zhan

Dirk Pitt esploratzaileak historia handiko txanpon bat aurkitzen duenean bere bizitzako abenturarik handiena hasiko du Afrikako lurralde arriskutsuenetan. Txanponaren pista jarraituz altxor bat aurkitzeko itxaropena du eta heriotzaren barkua deituriko aintzinako gerra unti batetaraino eramango diu. Han ezagutuko dute Eva Rojas doktorea, emakume argi bezain ederra. Rojas andereak ezkutuko altxorra munduarentzat mehatxu bat dela uste du ordea.

Atzera begira



1967. urteko erretratu zahar hau **heritar** laga digu. Argazkian ageri diren emakume hauek Marilo Astigarragaren ezkontza ospatu zuten egun honetan. Loiolan izan zen ezkontza. Begira nolako dotore dagoen andregai! Lagunak ere, denak dotore-dotore jantzita eta orraztuta ageri dira argazkian. Ikusten den bezala, ez zeukaten pantorrilak erakusteko lotsarik! Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri diren emakume dotore hauek: Ezkerretik eskumara: **Blandi Konde (†), Arantza Andonegi, Marilo Astigarraga, Arrate Astigarraga (†), Ines Unzilla eta Maria Luisa Igartua.**



ESKERTZA

2005eko ekainaren 27an hil zen
Ventura Agirregomezkorta Ibarluzearen
anai-arrebek, ilobek eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





230.000 €-tik
garaie eta trasteleku barne
(38.300.000 pta.)

48 etxebizitza, 2 eta 3 gelakoak

117 garaie eta 76 trasteleku



Argibideak:
ANTT CONSULTORÍA
Antonio Arrillaga, 1 behea
20870 Elgoibar

Tfn.: 943 74 80 92 ■ Fax: 943 74 82 42

info@infotur.net - www.infotur.net



Construimos sueños

**AZKEN ETXEBIZITZAK
salgai**



artair



Neinor

NEINOR Azkoitia
Julio Urquijo Etorbidea, 10
20.720 AZKOITIA

☎ 943 852 411 - 943 317 511

- 4 logelako duplexak behekalde estaliarekin
- Terraza eta lorategi handiak. Garaie itxiak. Leku eguzkitsua hegoaldera begira eta bista panoramikoak.





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit

Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso

Lelhoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze

Lelhoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

Ongi

Olaso Poligonoa,
15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrot

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44
☎ 659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

Zaldua

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 17
☎ 605 70 52 04



Elektrizitatea

Aramar

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40



Isolamenduak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94



Indusketa lanak

Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldolekunberri@hotmail.com
www.excavacioneslekunberri.com



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698